



KIMUAK 2011 programarako deialdia

1. SARRERA

Deialdi honen bidez, euskal film laburrak sustatu, ezagutzera eman eta banatu nahi ditugu, hala Espainian nola nazioartean, «KIMUAK» izen orokorra erabilita. Horretarako, Euskadiko Filmategiak katalogo-karpeta bat argitaratuko du eta jaialdi zein ikus-entzunezko jardueratarako foro garrantzitsuenetara bidaliko du.

2. BETEKIZUNAK

Deialdian parte hartu ahal izateko, film laburrek honako betekizunak izango dituzte:

- 1.- 2010eko irailaren 30etik aurrera amaitutakoak izan behar dute.
- 2.- Film laburra edozein hizkuntzatan eginda egon daiteke, edo hitzik gabekoa ere izan daiteke.
- 3.- Film laburraren gehieneko iraupenak 30 minututik beherakoa izan behar du.
- 4.- Edozein euskarritan eginda egon daiteke, bai zinematografikoan, bai bideografikoan.
- 5.- Film laburra estreinatu gabekoa izatea ez da nahitaezko betekizuna, baina bai gomendagarria.
- 6.- Zuzendariak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) erroldatuta egon behar du, gutxienez deialdia argitara eman baino urtebete lehenagotik, edota, EAEn jaioa izanik, 5 urtez jarraian bertan bizitakoa izan behar du, edota aldika 10 urtez.
- 7.- Ekoizleak edo ekoizpen-etxeak EAEn izan behar du egoitza. Bi enpresen arteko koprodukzioa bada, ekoizleak gutxienez film laburraren eskubideen % 50aren jabetza izan behar du; koprodukzioa bi enpresa baino gehiagoren artekoa bada, ekoizleak gutxienez film laburraren % 35aren jabetza eduki beharko du, eta koprodukzioaren bazkide gehiengoduna izan beharko du.

OHARRA: Deialdian parte hartu ahal izateko, **azken bi puntuetako bat (5.a eta/edo 6.a) betetzea aski izango da.**

3. NON ETA NOIZ AURKEZTU

Hautagaitzak aurkezteko epea 2011ko **apirilaren 19an** hasi eta **uztailaren 8an** amaituko da (posta-zigiluaren data edo bidalketaren egiaztatzea). Lanak honako helbidera bidali behar dira:

Euskadiko Filmategia Fundazioa (KIMUAK 2011 programa)

Antso Jakituna hiribidea 17, atzealdea

20010 Donostia

Tel.: 943 11 55 11 / Faxe: 943 46 99 98

Helbide elektronikoa: kimuak@filmotecavasca.com

4. HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Hautatzeko irizpide nagusia lanaren kalitatea izango da, hala nola ahalik eta ikuslego zabalenera iristeko dituen aukerak. Lanaren orijinaltasuna eta ausardia aintzat hartuko dira, hala nola euskaraz errodatuta egotea eta EAeko teknikari eta aktoreak erabili izana.

5. EPAIMAHAIA

Aurkeztutako eskaerak aztertu eta epaitzeko, balorazio batzorde bat osatuko da. Bost kide izango ditu, sona handiko profesional zein adituak guztiak ere; hiru EAEkoak eta beste biak kanpokoak. Hautaketaren emaitzak dagokionean jakinaraziko zaizkie parte-hartzaileei eta komunikabideei.

6. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Deialdian parte hartu ahal izateko, nahitaezkoa da honako agiriak aurkeztea:

- Film laburraren 1 DVD;
- Erantsita dagoen inprimakia, behar bezala beteta;
- Zerga-betebeharrak egunean izatearen egiaztagiria;
- Bizilekua EAEn izatearen edo eduki izanaren egiaztagiria.

Jatorrizko bertsioa euskarazkoa bada, edota espainola ez den beste edozein hizkuntzatan badago, espainolezko azpigituluak ipintzea komeni da, epaimahaikideen lana errazteko.


7. HAUTATUAKO FILM LABURREN KONPROMISOAK

Hautatutako film laburren ekoizleek hitza ematen dute honakoak aurkeztuko dituztela, antolakuntzak adierazitako datan:

- Film laburraren kopia bat jatorrizko bertsioan eta ahalik eta kalitate handienarekin (disco gogorra, memoria-giltza eta abar).
- Film laburraren kopia bat jatorrizko bertsioan, ingelesezko eta frantseseko azpigituluarekin (eta espainolezkoekin, hala badagokio), betacam digital formatuan (ahal dela, bertsio guztiak zinta bakarrean).
- Film laburraren elkarrizketa-zerrenda jatorrizko bertsioan, denbora kodeak barne.
- Fitxa tekniko eta artistiko osoa (eredua emango dizuegu).
- Film laburraren 6 argazki, gutxienez (bereizmen txikiena: 300 dpi).
- Film laburraren kartela (jpg, tif).
- Film laburraren trailerra (mov, avi, mpeg formatuak).
- Zuzendariaren argazkia.
- Zuzendariaren biofilmografia.
- Zuzendariaren NANaren edo pasaportearen fotokopia (jpg, pdf).
- Film laburra KIMUAKerako hautatu aurretik estreinatu bada, ekoizleak film laburra zer jaialditara bidali duen adierazten duen zerrenda osoa aurkeztu beharko du, zeintzuetan hautatu duten eta zer sari jaso dituen ere adierazita.

Prozesuaren eta azken emaitzaren uniformetasuna bermatze aldera, KIMUAK arduratuko da hautatutako filmen itzulpenen eta azpigituluaren kudeaketa zuzenaz. Ingeleserako nahiz frantseserako itzulpenen kostuak (eta gaztelerazkoak zein euskarazkoak, hala badagokio) ekoizlearen kontura izango dira; aldiz, italierazko nahiz alemanezko itzulpenen kostuak KIMUAKek hartuko ditu bere gain.

KIMUAKek hautatutako film laburren egileek errespetatu beharko duten epe bat jarriko du materialak entregatzeko. Egutegia bete ezean, KIMUAKek beren atzerapenagatik katalogoa egiteko arazoak sortzen dituztenei zigor ekonomikoa jartzeko eskubidea izango du, eta, arau-hauste larria gertatuz gero, filmak baztertzera irits daiteke.




8. AZKEN XEDAPENAK

- Film labur bat KIMUAK katalogorako hautatzeak esan nahi du aipatutako katalogoan ESKLUSIBOTASUNEZ jasoko dela eta, beraz, ezingo dela film laburrak zabaltzeko beste katalogo publiko batean azaldu. Muga horrek ez du eraginik izango enpresa pribatuen katalogoetan, betiere, enpresa horiek film laburrak zinema-jaialdietan eta gainerako esparruetan zabaltzen aritzen ez badira.
- EITBk (Euskal Irrati Telebista) KIMUAKen parte hartzeko hautatutako lanen gaineko lehentasunezko erosketa eskubidea izango du.
- Gainera, ekoizleek beren filmak KIMUAK programara aurkezteaz gain, nahi izanez gero, EITBri ere aurkez diezazkiokete, erakundeak emisio eskubideak erosteko aukera azter dezan. Halakoetan, ekoizleak film laburraren BI DVD bidali beharko ditu, inprimakian dagokion laukia markatuta.

9. OINARRIAK ONARTZEA

Film laburra deialdirako aurkezteak oinarri hauek automatikoki eta osoki onartzea dakar.

Donostia, 2011ko apirilaren 19a



KIMUAK 2011

FILM LABURRA KIMUAK PROGRAMAREN KATALOGOAN SARTZEKO ESKAERA

Film laburraren izenburua:.....

Zuzendaria: Iraupena (min.):

Lana aurkeztu duen pertsona fisiko edo juridikoaren izena:

.....

Kargua:

Helbidea:

PK: Herria:

Tel.: Mugikorra:

Helbide elektronikoa:

Webgunea:

ESKAERA EGIN DUEN PERTSONAK/ERAKUNDEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

A) Pertsona fisikoak:

- NANaren fotokopia.
- Adierazitako epeetan edo gaur egun bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatearen egiaztatzea.

B) Pertsona juridikoak:

- Pertsona juridikoaren lege-ordezkararen NANaren fotokopia eta ordezkaritza ahalmenaren egiaztatzea.
- Bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatearen egiaztatzea.

C) Bai pertsona fisikoak, bai juridikoak:

- Zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

Film laburra EITBri (Euskal Irrati Telebista) aurkeztea nahi dut, emisio eskubideak erosteko aukera azter dezan

.....(e)n, 2011koaren..... (e)(a)n

Sinadura:



Convocatoria Programa KIMUAK 2011

1. INTRODUCCIÓN

El objeto de la presente convocatoria es la promoción, difusión y distribución de los cortometrajes vascos, tanto a nivel nacional como internacional, bajo la denominación genérica de "KIMUAK". Para ello, se elaborará un catálogo-carpeta, editado por Euskadiko Filmategia-Filmoteca Vasca, que será distribuido por festivales y foros de actividad audiovisual de este tipo más importantes.

2. REQUISITOS

A la presente convocatoria pueden concurrir los cortometrajes que cumplan los siguientes requisitos:

- 1.- Finalizados con posterioridad al día 30 de septiembre de 2010.
- 2.- El cortometraje puede estar realizado en cualquier idioma, o bien carecer de diálogos.
- 3.- La duración máxima del cortometraje debe ser inferior a 30 minutos.
- 4.- Puede haber sido realizado en cualquier formato, bien sea cinematográfico o videográfico.
- 5.- No es requisito imprescindible que el corto no haya sido estrenado, aunque sí resulta recomendable.
- 6.- El director debe residir en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) desde al menos un año antes de la fecha de publicación de la presente convocatoria, o bien haber nacido en la CAPV y haber residido en ella de manera continuada durante al menos 5 años, o de forma discontinua durante al menos 10 años.
- 7.- El productor o la empresa productora debe estar radicada en la CAPV. En caso de que se trate de una coproducción entre dos empresas, el productor debe ser propietario de al menos un 50 % de los derechos del corto; si la coproducción es entre más de dos empresas, el productor debe poseer al menos un 35 % del corto y ser socio mayoritario de la coproducción.

NOTA: Para poder concurrir a la presente convocatoria es suficiente con cumplir uno de los dos últimos puntos (5 y/o 6).

3. PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN

El plazo de presentación de solicitudes se abrirá el día **19 de abril** de 2011, y se cerrará el **8 de julio** (fecha de franqueo postal o justificante de envío). Las solicitudes deberán de enviarse a la siguiente dirección:

Fundación Filmoteca Vasca (Programa KIMUAK 2011)
Avda. Sancho el Sabio, 17 – trasera
20010 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 11 55 11 / Fax: 943 46 99 98
E-mail: kimuak@filmotecavasca.com

4. CRITERIOS DE SELECCIÓN

El criterio de valoración fundamental será la calidad del trabajo, así como su posible comprensión por parte de públicos variados. Se valorará la originalidad y el riesgo de la propuesta, el hecho de estar rodado en euskera y la participación de técnicos y actores vascos.



5. JURADO

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Valoración compuesta por cinco miembros, seleccionados entre profesionales y expertos de reconocido prestigio, tres de ellos procedentes de la CAPV y otros dos de fuera de la Comunidad. Los resultados de la selección serán oportunamente comunicados a los participantes y medios.

6. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Para poder concurrir a la presente convocatoria es necesario presentar la siguiente documentación:

- 1 DVD del corto;
- Ficha adjunta debidamente cumplimentada;
- Justificante de hallarse al corriente de pagos con Hacienda;
- Justificante de residir o haber residido en la CAPV.

Para todos aquellos cortos realizados en euskera o en cualquier lengua distinta del español, se recomienda subtítularlos en dicho idioma, debido a la presencia en el jurado de personas ajenas a la CAPV.

7. COMPROMISOS DE LOS CORTOMETRAJES SELECCIONADOS

Los productores de los cortometrajes seleccionados se comprometen a entregar, dentro de las fechas marcadas por la organización, el siguiente material:

- Copia del cortometraje en su versión original en la máxima calidad posible (disco duro, pendrive...)
- Copia del cortometraje en su versión original, subtítulada en inglés y en francés (y en español, en su caso), en formato betacam digital (preferible todas las versiones en una misma cinta).
- Lista de diálogos del corto en su idioma original, con códigos de tiempo.
- Ficha técnica y artística completa (se facilitará modelo).
- Al menos 6 fotografías del corto (resolución mínima: 300 dpi).
- Diseño del cartel del cortometraje (jpg, tif).
- Trailer del cortometraje (formato mov, avi, mpeg).
- Una fotografía del director.
- Biofilmografía del director.
- Un documento (jpg, pdf) del DNI o pasaporte del director.
- Si el corto ha sido estrenado con anterioridad a su inclusión en KIMUAK, el productor deberá facilitar un listado completo de los festivales a los que el corto ha sido previamente enviado, las selecciones habidas y los premios conseguidos.

En aras de la uniformidad del proceso y del resultado final, KIMUAK gestionará directamente las traducciones y los subtítulos de los cortos seleccionados. Los costes de las traducciones al inglés y francés (y castellano y euskera, en su caso) serán asumidos por el productor, mientras que los costes derivados de las traducciones al italiano y alemán serán asumidos por KIMUAK. KIMUAK establecerá un calendario para la aportación de materiales, que deberá ser respetado por los cortometrajistas seleccionados. En caso de incumplimiento de este calendario, KIMUAK se reserva el derecho de penalizar económicamente a quien incurra en retrasos que afecten a la elaboración del catálogo, pudiendo llegar a la exclusión en caso de incumplimiento grave.




8. DISPOSICIONES FINALES

- La selección de un cortometraje para el catálogo KIMUAK implica su presencia EN EXCLUSIVIDAD en dicho catálogo, no pudiendo por tanto estar presente al mismo tiempo en ningún otro catálogo público de difusión de cortometrajes. Esta limitación no afecta a los catálogos de empresas privadas, siempre y cuando éstas no se dediquen a la difusión de los cortometrajes en festivales y ámbitos similares.
- EITB-Euskal Irrati Telebista tendrá una opción preferente de compra de todos los cortometrajes seleccionados en KIMUAK.
- Asimismo, todos los productores que así lo deseen pueden presentar simultáneamente sus cortometrajes al programa KIMUAK y a EITB, para que esta institución pueda considerarlos para una posible compra de los derechos de emisión. En este caso, el productor deberá enviar DOS discos DVD del cortometraje y marcar la casilla correspondiente en la hoja de inscripción.

9. ACEPTACIÓN DE LAS BASES

La presentación de un corto a esta convocatoria supone la aceptación automática y completa de las presentes bases.

Donostia-San Sebastián, 19 de abril de 2011



KIMUAK 2011

SOLICITUD PARA LA INCLUSIÓN DEL CORTOMETRAJE EN EL CATÁLOGO DEL PROGRAMA KIMUAK

Título del cortometraje:

Director: Duración (min.):

Nombre de la persona física o jurídica que presenta la obra:

.....

En calidad de

Dirección:

CP: Localidad:

TF: Móvil:

E-mail:

Página web:

DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR LA PERSONA / ENTIDAD SOLICITANTE:

A) Cuando se trate de personas físicas:

- Fotocopia del DNI.
- Acreditación de haber residido en los plazos establecidos o estar actualmente domiciliado en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

B) Cuando se trate de personas jurídicas:

- Fotocopia del DNI del representante legal de la persona jurídica así como acreditación del poder de representación que ejerza.
- Acreditación de estar domiciliada en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

C) Tanto para personas físicas como jurídicas:

- Certificación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias.

Deseo que mi corto sea presentado a EITB-Euskal Irrati Telebista para la posible compra de sus derechos de emisión

En, a de de 2011

Firma: